

## ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOA

# Trantsizio ekologikora eta trantsizio digitalera bideratutako proiektu estrategikoak 2021

Testu osoa, [hemen](#)

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren (aurrerantzean, IEO) sinadura lortzeko, INak I. eranskina –IOEren webgunean eskuratu daiteke– beteta bidali beharko du, jarraian agertzen den helbide elektronikora, **2022ko urtarrilaren 10era arteko epean (egun hori barne)**. Hortik aurrera, teknikari bat jarriko da harremanetan INarekin. **Proiektu koordinatuen kasuan**, UPV/EHU ez den erakunde batek koordinatutako azpiproiektu baterako eskaera aurkezten duten ikertzaileek eskaera itxi eta dokumentazioa koordinatzaileak finkatzen duen itxiera epea baino **48 ordu lehenago** bidali beharko diote IEOri.

HARREMANETARAKO HEL. ELEK.: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

Gainera, **2022ko urtarrilaren 17ko 08:00ak arteko epea** dago, gehienez ere, Ministerioaren aplikazioan eskaera ixteko eta IEOri aurrerago adierazita dagoen dokumentazioa bidaltzeko.

**Kanpoko proiektuetako taldeetan parte hartzeko baimenen** sinadura **2022ko urtarrilaren 14ra arte** eskatu ahal izango da, gehienez ere, honako helbide elektronikora idatziz: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

## ESKAERAK AURKEZTEKO EPE BAKARRA, MINISTERIOAK FINKATUA

2021eko abenduaren 16tik 2022ko urtarrilaren 19ko 14:00ak arte (penintsulako ordua)

<p><b>Eskuliburuak eta maiz egiten diren galderak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Deialdiari buruz maiz egiten diren galderak: <a href="#">esteka</a></li> <li>• Eskaerak aurkezteko eskuliburua: <a href="#">esteka</a>.</li> <li>• <b>CVLa</b> betetzeko jarraibideak: <a href="#">esteka</a></li> <li>• Proiektu <b>indibidualen memoria</b> zientifiko-teknikoa betetzeko jarraibideak: <a href="#">esteka</a>.</li> <li>• Proiektu <b>koordinatuen memoria</b> zientifiko-teknikoa betetzeko jarraibideak: <a href="#">esteka</a>.</li> <li>• <b>Proposamen</b> zientifiko-tekniko laburtua betetzeko jarraibideak: <a href="#">esteka</a>.</li> </ul>
<p><b>GARRANTZITSUA:</b> Eskaeraren gutxieneko edukia (*Forma akatsak zuzentzea bakarrik onartuko da: aurkeztu ondoren, ezingo dira hobetu*)</p>	<p>Eskaria egiteko inprimaki elektronikoarekin batera, nahitaezko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da –dokumentazio hori eskaeraren partetzat hartuko da–. Aurkezten ez bada, eskaera baztertu egingo da:</p> <p>a) <b>Proiektuaren proposamen zientifiko-tekniko laburtua</b>. Gehienez ere 3 orrialdeko luzera izango du, bai proiektu indibidualen bai proiektu koordinatuen kasuan, eta <a href="#">deialdiko oinarrien IV. eranskinean (oinarrien amaieran dago)</a> deskribatutako edukia jaso beharko du. Eskaera egiteko aplikazioak ez du onartuko aipatutako luzera gainditzen duen memoria</p>

laburturik. Eskera betetzeko Agentziaren webgunean dagoen eredia erabiltzea gomendatzen da.

Proiektu koordinatu baten eskaera aurkezten denean, proposamen zientifiko-tekniko laburtu bakarra egongo da, baina azpiproiektu bakoitzaren helburuak eta zereginak ere jasoko ditu. Proposamen hori proiektuaren ikertzaile koordinatzaileak aurkeztuko du. Aplikazio telematikoak, automatikoki, azpiproiektu bakoitzean sartuko du.

Proposamen zientifiko-tekniko laburtua ingelesez edo espainieraz aurkeztuko da. Memoria zientifiko-teknikoa Times New Roman, Calibri edo Arial hizki motarekin idaztea gomendatzen da eta gutxienez 11 puntuko neurria izatea; alboko marjinak 2,5 zentimetrokoak; goiko eta beheko marjinak 1,5 zentimetrokoak; eta gutxienerako leerroarte simplea izatea.

Esteka lagungarriak:

- 1. [Proposamena idazteko jarraibideak](#)
- 2. [Proposamen eredia \(proiektu indibidualak\)](#)
- 3. [Proposamen eredia \(proiektu koordinatuak\)](#)

b) **Proiektuaren memoria zientifiko-teknikoa.** Proiektu indibidualen kasuan, gehienez ere 20 orrialdeko luzera izango du, proiektu koordinatuen kasuan, 35 orrialdekoa, eta [deialdiko oinarrien IV. eranskinean \(oinarrien amaieran dago\)](#) deskribatutako edukia jaso behar du. Eskera egiteko aplikazioak ez du onartuko proiektu mota bakoitzerako aipatutako luzera gainditzen duen memoriarik. Eskera betetzeko, proiektu mota bakoitzerako eredia erabiltzea gomendatzen da –Agentziaren webgunean daude–.

Proiektu koordinatu baten eskaera aurkezten denean, memoria zientifiko-tekniko bakarra egongo da, baina azpiproiektu bakoitzaren helburuak eta zereginak ere jasoko ditu. Memoria hori proiektuaren ikertzaile koordinatzaileak aurkeztuko du. Aplikazio telematikoak, automatikoki, azpiproiektu bakoitzean sartuko du.

Ingelesez edo espainieraz aurkeztuko da. Memoria zientifiko-teknikoa Times New Roman, Calibri edo Arial hizki motarekin idaztea gomendatzen da eta gutxienez 11 puntuko neurria izatea; alboko marjinak 2,5 zentimetrokoak; goiko eta beheko marjinak 1,5 zentimetrokoak; eta gutxienerako leerroarte simplea izatea.

Memorian, zailtasun posibleak konpontzeko kontingentzia plan bat jaso behar du, baita ikerketako datuak kudeatzeko plan bat ere.

Esteka lagungarriak:

- 1. [Memoria idazteko jarraibideak \(proiektu indibidualak\)](#)
- 2. [Memoria idazteko jarraibideak \(proiektu koordinatuak\)](#)
- 2. [Memoria eredia \(proiektu indibidualak\)](#)
- 3. [Memoria eredia \(proiektu koordinatuak\)](#)

c) **Ikertzaile nagusiaren curriculum vitae laburtua (CVL).** Estatuko Ikerketa Agentziaren webgunean dagoen eredu normalizatuan aurkeztuko da, [ingelesez](#) edo [gaztelaniaz](#), edo FECVTen webgunean dagoen «Curriculum vitae» normalizatuaren aplikazioan automatikoki sortzen den ereduan.

Ingelesez edo espainieraz aurkeztuko da. Proiektu guztietan CVLa ingelesez aurkeztea gomendatzen da.

CVLa Times New Roman, Calibri edo Arial hizki motarekin idaztea gomendatzen da eta gutxienez 11 puntuko neurria izatea; alboko marjinak 2,5 zentimetrokoak; goiko eta beheko

marjinak 1,5 zentimetrokoak; eta gutxieneko lerroarte simplea izatea. Gehienez ere 4 orrialdeko luzera izan behar du. Eskaera egiteko aplikazioak ez du onartuko 4 orrialdeko luzera gainditzen duen CVLrik.

CVLa betetzeko jarraibideen dokumentuan:

- 1. Aipatutako arauak agertzen dira, baita gomendagarriak diren beste batzuk ere.
- 2. "Argitalpenak" atalerako jarraibide espezifikoak barne hartu dira.

Azken hamar urteetan lortutako merituak bakarrik jasoko dira, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, garrantzi bereziko kasuetan izan ezik. Ikerketa jarduera eten duten egoerak (seme-alaben jaiotza, etab.) barne hartu ahal izango dira: ikus deialdiko oinarrien 45.2 artikulua.

Ez da beharrezkoa izango CVLan jasotako inguruabarren ziurtagiriak eskaera aurkezteko unean jasotzea, A motako proiektuetako INen kasuan izan ezik, deialdiko oinarrien 37.3.c) artikuluari jarraituz. Hala ere, laguntzak emateko prozedurako edozein unetan, egiaztatze eskatu ahal izango da.

## ESKAERAK AURKEZTEA

### • PROIEKTUEN IKERTALDEEK ETA LANTALDEEK BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEA

INak I. ERANSKINA beteta jasotzen duen mezu elektronikoa bat bidali beharko du bere campusaren arabera dagokion helbide elektronikora (IEOren webgunean eredu bat dago), **2022ko urtarrilaren 10era arteko epean (egun hori barne)**. Mezua jasotakoan, IEOko langileak INarekin harremanetan jarriko dira.

**HARREMANETARAKO HEL. ELEK.:** [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

I. eranskina bidaltzen ez bada edo, kasuan-kasuan, aipatutako dokumentuaren berrikuspenetik eratorritako aldaketak jasotzen ez badira, IEOk ez du eskaera sinatuko, eta, ondorioz, deialdira aurkeztu gabetzat joko da.

### • ESKAERAK MINISTERIOAREN APLIKAZIOAN FORMALKI AURKEZTEA

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira, honako [aplikazio](#) honen bitartez. [Ministerioaren webgunean](#) eskaerak aurkezteko moduari buruzko eskuliburu bat dago.

- Bi IN dituzten proiektuen kasuan, jakinarazpenetarako bitartekari gisa izendatuta dagoenak aurkeztuko du formularioa.
- Proiektu koordinatuen kasuan, azpiproiektu bakoitzeko INak bere eskaera aurkeztu beharko du.

Eskaera bete eta IEOk adierazitako aldaketak jasotakoan, INak datuen betetzea amaituko du eta eskaera telematikoki aurkeztuko du.

**PDF artxiboen bidalketa:** Jarraian, INak mezu elektronikoa bat bidaliko du harremanetarako helbide elektronikora, eskaera IEOk sinatzeko prest dagoela jakinarazteko. Mezu elektronikoa horretan, honako dokumentazio hau erantsiko da:

- **Aplikazioak sortutako eskaera.** Ziurtagiri elektronikoa bidez sinatuz gero –hori gomendatzen da–, nahitaez proiektuan parte hartzen duten pertsona guztien sinadura elektronikoa barne hartuta bidali beharko da (bai

ikertaldekoena bai lantaldekoena). Sinadurak eskuz idatzitakoak badira, horrez gain, **barneko posta bidez**, jatorrizko sinadurak barne hartuta bidali beharko da eskaera honako helbide honetara (**GARRANTZITSUA**: ez Erregistro bidez): Ikerketaren arloko Errektoreordetza, Deialdien Atala, Leioako Campuseko Errektoretza, Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa.

- **Proiektuaren proposamen zientifiko-tekniko laburtua**
- **Memoria zientifiko-tekniko indibiduala edo koordinatua**
- **INaren eta IN hideosaren (halakorik badago) CVLa**
- **UPV/EHUkoak ez diren pertsonen parte hartzea baimentzen duen dokumentua** Ziurtagiri elektronikoa bidez sinatzea gomendatzen da. Jatorrizko sinadurak eskuz idatziak baldin badira, horrez gain, dokumentu hau **barneko postaz** bidali behar da, jatorrizko sinadurak barne hartuta, honako helbide honetara: Ikerketaren arloko Errektoreordetza, Deialdien Atala, Leioako Campuseko Errektoretza, Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa.
- **Dirulaguntzarik jaso ez izanaren berriazko adierazpena (dokumentua UPV/EHUren webgunean dago)** edo, kasuan-kasuan, bateragarritasunari eragin diezaioketen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatuaren zerrenda zehatza. Ziurtagiri elektronikoa bidez sinatzea gomendatzen da. Jatorrizko sinadurak eskuz idatziak baldin badira, horrez gain, dokumentu hau **barneko postaz** bidali behar da, jatorrizko sinadurak barne hartuta, honako helbide honetara: Ikerketaren arloko Errektoreordetza, Deialdien Atala, Leioako Campuseko Errektoretza, Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa.
- **(Hala badagokio) A motako proiektuetako INen kasuan**, eskaera formularioan hala jasotzen denean, 37.3.c) artikuluan adierazitako egoeraren bat gertatzen dela egiaztatzeko dokumentazioa –adierazitako etendura motak adina dokumentu barne hartu beharko dira, PDF formatuan–.
- **(Hala badagokio) itsas plataformak, itsasontzi ozeanografikoak edo bestelako itsasontziak erabiltzea eskatzen duten proiektuen kasuan**, honako dokumentu hauek erantsi beharko dituzte –Agentziaren webgunean eskuratu daitezke–: (1) kanpainako plana, eta (2) eskatutako erabilera denboraren egiaztapena.
- **(Hala badagokio) Antartikoko Itunak jasotako eremuan egingo diren proiektuak**, zeintzuek Madrilgo Protokoloa bete beharko duten (BOE, 1998ko otsailak 18), honako dokumentu hauek barne hartu beharko dituzte –Agentziaren webgunean eskuratu daitezke–: (1) kanpainako plana eta Espainiako baseetako azpiegitura eskaera, (2) laguntza logistikoaren eskaera, (3) ingurumen eragina aztertzeko datuak, (4) beste herrialde batzuetako baseetarako sarbidea eta (5) baseetako jarduerak onartzeko konpromisoa. Proiektuan kanpaina ozeanografiko bat egin behar bada, horrez gain, aurretik aipatutako b) apartatuko itsasontziei buruzko datuak barne hartu beharko dira.

## PROIEKTU KOORDINATUAK

Eskaera asko jasoko direla aurreikusten denez eta, kontuan hartuz arazo teknikoak sortu daitezkeela, UPV/EHU ez den erakunde batek koordinatutako azpiproiektu baterako eskaera aurkezten duten ikertzaileek eskaera itxi eta dokumentazioa koordinatzaileak finkatzen duen itxiera epea baino **48 ordu lehenago** bidali beharko diote IEOrri.

## INFORMAZIO GEHIAGO

Honako hauek dira eskaera betetzeko behar diren UPV/EHUren harremanetarako datuak:

Izena \*

Lehen abizena \*

Bigarren abizena

Telefonia \*

Helbide elektronikoa \*

Kargua \*